

Bagilearen 18an egingo da Arratiatik Urkiolarako errogatibea

Autobusez, eta Dimatik eta Zeanuritik oinez egiteko aukerea izango da

“Urkiola joan, zapatak urrutu... Aita San Antoniok barriak egingo ditu...” dino koplak zaharrak, eta oinetakoak urrutzeko aukerea izango dabe Arratiako oinezko errogatiban parte hartu gura dabenek. Bagilearen 18an, zapatuan, egingo da Urkiolara, Paduako San Antonioren santutegira errogatibea. Tradizinoa jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiarren errogatiba eguna; lehenago herri bakoitzak bere errogatibea antolatzen baeban be, azken urteotan, Arratiako parrokiak guztiak aldi berean joaten dira Urkiolara, bailarako abadeakaz batera; horretarako, Mankomunitateak lau autobus ipiniko dauz. Autobusean joan etorria egiteko, ala etorteko baino ez bada, izena emon behar da aste bete lehenago. Dana dala, erromes guztiak ez dira autobusean joango, batzuk euren kotxeetan eta beste batzuk oinez joango dira eta. Zeanuritik eta Dimatik Urkiolara oinezko ibilaldi gidatuak be prestatu dira.



Arratiar asko hurreratuko da Urkiolara, batzuk kotxean edo autobusean eta beste batzuk oinez

Zeanuri-Uriola PR-a ezagutzera emotea

Aurten be Arratiatik Urkiolara joateko oinezko ibilaldi gidatuak izango dira Dimatik eta Zeanuritik abiatuz. Dimako plazan goizeko 06:00etan izango da urteerea eta Zeanuriko plazan, 07:30etan. Zeanuri eta Urkiola lotzen dituen ibilbidea iaz seinalizatu zen *PR-BI 1* moduan; Joko Alaiko Alkarteko boluntario talde batek seinalizatu eban Zeanuriko Udalaren laguntzeagaz eta errogatiba eguna bide hori erakusteko eta ezagutzera emoteko aprobetxatuko da. PR-a Zeanuriko plazatik abiatzen da, Soloeta eta Makaztui auzuneetatik igaroz, Zumeltzako atsedenekura zuzentzeko, eta hemendik santutegira dagozan 5,5 kilometroak egiteko, GR 12 (Euskal Herriko bidezidorra) ibilbide luzea jarraitzen da. Martxa normalean, hiru ordu eta hamabost minutuan egin daiteken ibilbidea da.



Ibilaldi gidatuetako bat Zeanuriko plazatik aterako da, goizeko 07:30etan

Egitaraua

Aurtengo errogatibea **“Lur hau geurea da. Ondo zaindu dagigun”** lemapean egingo da. Gaia ekologikoa da, Aita Santuaren *Laudato Si’* entziklikaren gaia zabalduz. Beraz, aurtengo errogatibeak kutsu ekologikoa daukanez, aproposa da joan-etorria oinez egiteko.

Egitarauari dagokionez, hamaikak baino lehentxoago, ongi-etorria emongo jake oinez, autobusean edo euren kotxeetan Urkiolara hurreratutako arratiar erromesei. Ondoren, eta aspaldiko usadioa jarraituz, letaniak abestuz sartuko dira erromesak

Urkiolako santutegira, 11:00etan Arratiako abadeak emongo dabenek mezea ospatzeko. Meza ostean, Dimako parrokiak —aurtengo errogatibearen antolatzailea— lemeagaz bat

datorren ekintza bat aurkeztuko dau santutegiaren kanpoaldean. Eta ekitaldi honeguz egitarauari amaierara emongo jake. Autobusean etorritakoak 13:00etan euren herritara itzuliko dira.